

SALAKETA BIDEAREN POLITIKA

Gizakia Helburu Nafarroako Fundazioa

1. Politika honen helburua salaketak kudeatzeko sistema bat ezartzea da, Nafarroako "Gizakia Helburu" Fundazioko (NGHF) kideek legez kanpokoak izan daitezkeen edo [Kode Etikoan](#) xedatutakoaren aurka egin dezaketen jokabideak edo ekintzak ahalik eta azkarren identifikatu eta konpontzeko.
2. Horretarako, Fundazioak salaketak bidaltzeko bide bat gaituko du bere webgunean. Bide hori barneko edo kanpoko edozein interes-taldetako pertsonak erabiltzen ahalko dute, baldin eta fundazioarekin edozein motatako lotura badute: enpleguak eta boluntarioak, programen erabiltzaileak, erakunde laguntzaileak, diru-emaitzaileak, erakundeak, etab. Salaketa bidea aise erabiltzen ahalko da formulario espezifiko baten bidez. Kode etikoa eta salaketa bidearen politika ere publikoak eta irisgarriak izanen dira web orriaren bitartez.
3. Salaketa bat komunikatzen duen pertsonaren identitatea isilpeko informazioztat hartuko da, eta ez zaio hirugarren bati jakinaraziko haren baimenik gabe, salbu eta agintari administratibo edo judizialek hala eskatzen badute salaketaren xedearen ondoriozko edozein prozeduraren ondorioz. Balizko datu-lagapenak datu pertsonalak babesteari buruz indarrean dagoen legediaren arabera egingen dira beti.
4. Salatuari salaketaren existentziaren eta edukiaren berri emanen zaio, baita salaketari buruzko ikerketa azkenean ezesten denean ere, betiere jakinarazpen horrek ikerketaren garapena arriskuan jartzen ez badu.
5. Patronatuak bi kide izendatuko ditu salaketen bidea kudeatzeko. Kide horiek salaketetarako sarbide eskusiboa izanen dute, eta une oro informazioaren konfidentzialtasuna bermatzeko konpromisoa hartuko dute. Salaketaren batek interes-gatazka eragin badezake, izendatutako pertsonak edo pertsonak hori agerrarazi beharko dute, eta haren eginkizunak Patronatuko beste pertsona batzuei eskuordetuko zaizkie.
6. Patronatuan salaketen bidea kudeatzeko izendatutako pertsonak salaketen erregistroa egingen dute. Erregistro horretan, kasu bakoitzean identifikazio-kode bat, harrera-data, jasotako informazioa, erantzunaren data eta edukia eta erantzunaren jarraipena jasoko dira.
7. NGHFek eskubidea du fede onaren irizpidea argi eta garbi urratzen duten salaketak ez ikertzeko, baldin eta haien edukia edo forma errespetugabeak badira. Fede txarreko zantzurik badago, salatzailearen aurka legezko edo diziplinazko neurriak hartzeko eskubidea ere izanen du.
8. Salaketa guztiei gehienez 10 egun naturaleko epean erantzunen zaie, eta salatzaileari jakinaraziko zaio ikerketa-prozedura abian jartzeko edo ez jartzeko erabakia.
9. Prozedura honetan xedatutakoa gorabehera, eta salatutako egitateak kontuan harturik, Fundazioak ahalmena izanen du ikerketa-prozedura hasi edo amaitu baino lehen aurretik salatutako egitateen berri emateko agintariei, bai eta kaltea konpontzeko edo gutxitzeko neurriak proposatzeko ere.
10. Salaketa bat onartu ondoren, Patronatuan salaketen bidea kudeatzeaz arduratzen diren pertsonak instruktore bat edo batzuk izendatuko dituzte salatutako egitateak ikertzeko.

11. Patronatuan salaketen bidea kudeatzeaz arduratzen diren kideek prozesu osoan zehar ikuskatuko dute horretarako izendatutako pertsonaren edo pertsonen instrukzio-lana.
12. Instruktoeak arduratuko dira jasotako salaketari buruzko ikerketa garatzeaz, eta egokitzen dituzten pertsonekin elkarrizketak egiten ahalko dituzte, salatutako jokabidearen ustezko erantzulearekin batera. Salaketak ahalik eta lasterren tramitatuko dira.
13. Salaketen xede diren pertsonen intimitaterako, defentsarako eta errugabetasun-presuntziorako eskubidea bermatuko da salaketak kudeatzeko prozesu osoan.
14. Ikerketa amaitutakoan, instrukzio-egileak edo instrukziogileak txosten bat egiten dute dagozkien ondorioekin, eta salaketen bidearen arduradunei emanen diete. Horiek ebazpen-proposamen bat egiten dute, Patronatuko Batzordeari aurkeztuko diote, eta horrek, era berean, behin betiko ebazpena emanen du. Ebazpen hori Patronatuko Batzordearen bileraren aktan jasoko da, eta ahalik eta lasterrena jakinaraziko zaie Zuzendaritza Nagusiari, salaketa jarri zuen pertsonari eta salatuari. Edukiaren arabera, dagozkion diziplina-neurriak ezarriko dira, eta, delituen kasuan, agintariei jakinaraziko zaie.
15. NGHFek du inola ere errepresaliarik egiten, eta ez du lege-ekintzarik abiaraziko fede oneko salaketa jarri duen pertsona baten aurka. Halaber, fede oneko salaketa baten igorlearen aurka errepresalia bat hartzen duen edozein enplegaturen, boluntarioen edo patronatu kideren aurka lege- edo diziplina-ekintzak egiteko eskubidea izanen du.